



Larraona

Larragoako Udal Plan Orokorra dela eta, Larragoako Udalaren eta departamentu honen artean ondotik ageri diren puntuak adostea proposatu da, haien arabera idazteko gero udal plan orokorra (UPO); hori guztia, kontuan harturik arau hauek ezarritako printzipioak: hirigintzari eta sektoreari buruzko legeriak, udalaz gaindiko plangintzak eta departamentu honen eta Larragoako Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmenaren helburuek; eta kontuan harturik, orobat, eginiko txosten sektorialak eta lurralde antolamenduari dagozkion eta udalerrian bateratzen diren gai egituratzaile nagusiak. Hona hemen hitzarturiko puntuak:

### **1. Lurraldeko eredua.**

Udalerria Ameskoagoienan dago, bi mendilerroren artean: iparraldean, Urbasa, eta hegoaldean, Lokiz. Hiru paisaia-unitate daude, argi bereizita, ekialde-mendebalde norabidean:

- Hegoaldean, Lokizko mendilerroa, Kontserbazio Bereziko Eremua deklaratu.
- Iparraldean, Ameskoa ibarrak-Urbasako Limitaciones mendiaren magala, onura publikoko menditzat hartua.
- Eta erdialdean, nekazaritzako lurak; topografia aldetik maldan daude, iparraldetik hegoaldera, eta laborantza gehiena aletarako zereala da. NA-7130 errepideak zeharkatzen du (Lizarra-Gasteiz, Opakuan barna) zona hori; haren inguruan eta Urbasaren magalaren babesean dago herrigunea.

### **2. Ingurumen eta paisaia alderdiak.**

Lurralde eredian erabakigarri diren ingurumen eta paisaia balio hauek nabarmentzen dira:

- a) Intereseko naturguneak:
  - Lokiz kontserbazio bereziko eremuko (KBE) harizti ilaundun eta pagadiak, udalerriaren hegoaldean.
  - Lurralde konektagarritasuneko eremuak: Urbasako hariztiak eta pagadiak, Ameskoen aldeko mendi-hegaletan daudenak, Entzia KBEarekiko koherentzia ekologikoan.
  - Uiarra ibaiaren arroko ibai-sistema eta erreka-zuloak.
- b) Paisaiako elementu bereizgarriak:
  - Urbanen, Ameskoagoienan aldera dauden amilburuek osatzen duten lerroa: Kareharrizko azaleratze eta amilburu horien paisaia naturala, eta, berezitasun gisa, mendi-oinean harkaitzetatik askatutako kareharrizko bloke handiak.
- c) Kultur balio nabarmena duten eremuak:
  - Aztarnategi arkeologikoak. Artaxoko gaztelua eta Mokare.

### **3. Komunikabideen sistema egituratzailea.**

- a) Udalerrian dagoen errepide-sarea:
  - NA-7130 Ameskoagoienan.
- b) Oinez eta bizikletaz ibiltzeko sistema: oinezkoendako eta bizikletendako udalerriko bideen sarea.

Udalaren hirigintza-planak herriko mugikortasun arazoak aztertuko ditu eta horiek konpontzeko itenbideak proposatuko ditu (oinetzkoendako segurtasun eza, herriaren zatiketa eta aparkatzeko espazio mugatuen falta).

#### **4. Uholde arriskua.**

Udalaren hirigintza-planak arriskupean dauden eremuak identifikatu beharko ditu (uholde arriskua, sute arriskua...).

Larragoako bizitegirako lurzorua handituko da bertako uholde arriskuaren arabera.

#### **5. Landa-lurzorua.**

Ingurumen, paisaia eta kultur balioak kontuan hartuz, Udalaren hirigintza-planak ezarri beharreko landa-lurzoruaren araubideak irizpide hauek bete beharko ditu:

- Uztartu beharko ditu balioen eta elementuen zaintza (ingurumen eta paisaiakoak, eta nekazaritza, oihangintza, abeltzaintza, kultura eta abarretakoak) eta lurraldearen kudeaketa multifuntzionala, nekazaritza eta abeltzaintzaren eta basogintzako jarduerekin batera.
- Irizpide eta neurri zehatzak jasoko ditu, lurzoru urbanizaezinean ezartzen diren jarduerak paisaian eta ingurumenean integra daitezen.
- Lurzorua azpikategorien ezaugarriak zehaztu, eta landa-lurzoruaren balio eta erabilerekin koherentea den araubidea ezarriko du.

#### **6. Hiri-egitura eta hazkundearen kalkulu haztatua.**

Hiri-egiturari eusten zaio, eta finkatuta dagoen hiri-bilbea osatuko da bizitegiatarako garapen moderatuaren bidez; honako irizpide hauei jarraituko die:

- Sustatzea hondatuta edo finkatu gabe dauden hirigunearen barneko eremuen berroneratzea.
- Ertzeko eremuak birkonfiguratzea, hiri-lurzorua egungo lerroa berriro definituz.
- Eraikuntzen sakabanaketa saihestea, bai eta dentsitate handiko okupazioa edo gehiegizko bolumenak ere.
- Hirigunean oinezkoen joan-etorrietan segurtasuna hobetzea.
- Hiriguneko eremuen eta ingurune fisikoaren eta ibarreko beste herri batzuen arteko erlazioak bultzatzea.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, araudi irekia eta malgua proposatzen da, lurzorua erabileraren eta garatu beharreko jardueren gainean ikuspegi zabala duena; UHPen definituko da.

UHPk justifikatu eta zehaztuko ditu bizitegiatarako nahiz jarduera ekonomikoetarako dimentsioa eta proposamena, etorkizuneko beharren prospekzioaren arabera.

#### **7. Espazio libre publikoen sistema eta zuzkidurak.**

Udalaren hirigintza-planak zuzkidura-espazio berriak zehaztuko ditu, LOEEko oharrei erantzunez, eta dauden beharren eta garapen-aurreikuspenen arabera.

## **8. Uraren zikloko azpiegiturak.**

UHPn berariaz agertuko dira uraren zikloko elementu egituratzaileak, harguneak, biltegiak, hoditeria nagusia, hustubideak, araztegiak eta isurketa-puntuak, eta adieraziko ditu egin beharreko jarduketak, aurreikusitako gehieneko harrera-ahalmenerako.

Balorazio bera egin beharko da energia elektrikoaren hornidurari dagokionez.

Iruñean, sinadura digitalaren egunean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria

Larragoako alkatea

Oscar Chivite Cornago

Oscar Luis Urrea Atorrasagasti